euskara
ari du
Hernanin




# HERNANIN

2014ko azaroaren 29tik abenduaren 3ra

abenduak
2

## Erronka handia

Hernanin gero eta gehiago gara euskaraz jakin edota ulertzen dugunak, %80 inguru. Asko egin dugu aurrera azken 20 urteotan. Eta orain beste salto bat eman nahi dugu. Zertan? ERABILERAN. Zergatik? Askotan, ohituragatik, erraztasunagatik, eta beste arrazoi askorengatik, gaztelaniara jotzen dugulako.

Eta saiatuko bagina gehixeago hitz egiten? Gutako bakoitza ahalegin txiki bat egiten? Salto handia emango genuke eta ez dela hain zaila konturatuko ginateke.

**Ba, horixe da aurtengo erronka: abenduaren 2an, asteartea, euskararen eremu bihurtuko dugu Hernaniko Kaxkoa. Hori lortu nahiko genuke.**

Egunean zehar egiten ditugun erosketak, poteoa, elkarrizketak…, euskaraz egiteko ahalegina egitea nahi dugu. Bakoitzak bere neurriko ahalegina egitea. Dakienak erabiltzea eta eustea, gutxiago dakienari lagunduz. Gutxi dakienak, dakien hura erabiltzea…

Ikastetxeetako haurrek, gazteek eta euskaltegietako ikasleek lagunduko digute.

Herritarrak, zahar eta gazte, dendariak, tabernariak…, zuen laguntza ezinbestekoa da. Prest apustu honetan parte hartzeko?

Denon artean
lortu baietz!

# Aste osoko egitaraua

29

Azaroaren 29an, larunbata
**HASIERA EKITALDIA,**
12:30ean Txantxangorri Elkartearen aurrean.

30

Azaroaren 30ean, igandea
**KALE ANTZERKIA**
13:00etan Plaza Berrian.

1

Abenduaren 1ean, astelehena
**MINTZODROMOA ATSEGINDEGIN.** Bi saio.
Goizean 10:00etatik 11:00etara; arratsaldean 18:00etatik 19:00etara.

2

Abenduaren 2an, asteartea
Kaxkoan zehar,
**EUSKARA ARI DU. Euskaraz bizitzeko eguna.**

- Goizean zehar tailerrak udaletxeko aurkupetan, Ezkiagan, Plaza Berrian eta Zinkoenean. Herriko eskoletako haur eta gazteek antolatuta.
- 11:30-12:00: haur-katea (1.000 haur inguru) Leokatik hasita Gudarien plazaraino. Amaiera Gudarien plazan.

3

Abenduaren 3an, asteazkena
**IRAKURRALDIAK 4 tabernatan:** Goiz Eguzkin, Urun, Kixkalen eta Txeman.
Arratsaldeko 18:30ean hasita: bertsoak, prentsa-artikuluak, poemak, ipuinak,…

Antolatzaileak:

AEK EUSKALTEGIA · udal euskaltegiak · dobEra EUSKARA ELKARTEA · ni naiz... gu gara · berriaren lagunak ELKARTEA · Hernaniko Udala · Elizatxo Ikastola · Langile Ikastola · Urumea Ikastola · Inmakulada Ikastetxea · Hernani BHI

Laguntzaileak:

Hernaniko Merkatari Tabernari Berriak · kaxko AUZO ELKARTEA · Hainbat eta hainbat herritar boluntario.